

## SECCION AMENA.

### ASTO BATEN IPUIA

Trapu biltzalle batek asto bat zeukan aín ongi azia,  
 Ezik egiten zion pentsurik gabe zuen lan guzia.  
 Gau beranduan zuen biraltzen auzoko zelaietara  
 Isilchorian besteren kontu buzkantza choill betetzera.  
 Egunsentian egiten zion irrintzi bat nagusiak  
 Eta astoa echeratzen zan aditurik aren deiak.  
 Baña ona non asarratutzen diran batean auzoak,  
 Oso ondaturik ikusitzean baratzak eta soroak.  
 Nola baiziran gaur baño obeak askoz orduko denborak,  
 Nor bere eskuaz autsi zioten gisaisoari ezurrak.  
 ¡Arren negarrak ikusitzean asto gaisoa elbarri  
 ¡Parte oneko animak—zion—ez du au ez, orrela jarri!  
 Errejidore zan orduan ta zegoen Eliz-dorrea,  
 Ainbesteraño arantza, sasi eta belarrez betea.  
 Ezikan zion Batzarreari esan,—etor zait burura,  
 Bear dedala dorre polita garbitu neore kontura.—  
 Molda zituen polea eta beste zeukan tresna laster,  
 Esanaz: —nere astoak ez dik goserik, Jaunari esker.—  
 Soka batekin asto gaisoa lepotikan du lotutzen,  
 Eta ojuka ¡tira motellak! Eliz-dorrera igotzen.  
 Biderdiraño etzan noskiro, oraindikan allegatu  
 Eta ona non duten astoa ill, ito edo urkatu.  
 Nola zituen erakutsitzen bere ortz zuri ederrak  
 Begira nola—zion jabeak—egiten dituen parrak!  
 Baña, gizona,—esan zioten—adiskide on batzuek,  
 ¿Illa doala ire astoa oraindik ikusten ez dek?  
 —¡Ai chori-buru-aizez-puztuak! ¡zaudezte, arren, isillik!  
 ¿Ez dakizute astoen parrak ezagututzen oraindik?  
 Bada dek, alcha burua eta ortzak erakusitza.  
 Edo aizeak boteaz bere konpasa ez galdutzea.—  
 Orduan bere aldamenean zegoen jostallu batek  
 Zion: —astoak ere ¡motellak! egaka ikasi ditek!  
 —Zer miretsirik ez dek, egiaz ¡zeren gaurko denboretan,  
 Lau ankakoak ere nolanaí ditek ikasten izketan!  
 ¡Pozkidaz ziak erakutsiaz ortz eder zillarezkoak!  
 ¡Kanpantorrera belar jatera irriz ta parrez zijoak!—  
 Alkate jaunak zuen lenengo Batzarrean irakorri:  
 —Ona zer degun beletapean obizdetzat bear jarri:—  
 Trapu-zeritzon errejidore baten astoa pazkatzen,  
 Milla seireun ta bigarrenge MAYATZEAN emen ill zen.

C. OTAEGI-KOAK.

Ondarribian Urriaren 17.<sup>an</sup> 1882.<sup>an</sup>

